



Badator ehunmilak Ultra-Trail® probaren XIII. edizioa, uztailaren 12, 13 eta 14an

Probaren aurkezpen prentsaurrekoa

ehunmilakek urtez urte hazten jarraitzen du, pausuz pausu baina etenik gabe. 2024 honetan, hamahirugarren edizioan, parte-hartzaileen kopurua mantendu da eta 1.600 lagunetik gorako boluntariora taldea izango dugu!

Gaur eguerdian aurkeztu da ehunmilak probaren 2024ko edizioa, 2 parke natural (Aralar eta Aizkorri-Aratz) eta 30 herri gurutzatzen direlarik.

Kirol arloari dagokionean urteroko 3 probak mantentzen dira, baina aurtengoan distantzia eta desnibelak eguneratu egin dira:

- **ehunmilak** Ultra-Trail® proba (171km / D+10.500m).
- **goierriko bi haundiak** trail (90km / D+5.500m).
- **marimurumendi** maratoia (42km / D+2.300m).

AURKEZPEN EKITALDIA

Aurkezpen prentsaurrekoko mahaia honako hauek osatu dute: Gorka Sudupe (Ternua Group-eko kidea), Ion Ubide (GOITUR, Goierri Turismoko teknikaria), Leire Artola (Beasaingo alkatea), Mireia Trigueros (Euskal Mendizale Federakuntzako zuzendaritza batzordeko kidea eta mendi lasterketan arduraduna) eta Andoni Zubeldia (ehunmilakeko lasterketa zuzendaria).

ehunmilak 2024: Datu aipagarriak:

- **Parte-hartzaileen kopuruak zifra altuetan mantentzen dira:** Aurtengo edizioan guztira 16 herrialde ezberdinetako 1.313 lagun ditugu izena emanda.
- **Probaz proba partaideak** honela daude banatuta: 426 partaide **“ehunmilak”** Ultra-Trail® proban, 537 partaide **“goierriko bi haundiak”** trail proban eta 350 partaide **“marimurumendi”** maratoian.
- **Emakumeen parte-hartze zifrak goian mantendu:** iaz emakumezko partehartzean errekor historikoa ezarri ondoren aurtengoan 134 emakumezko partaide izango ditugu honela banatuta: 27 emakume **“ehm”** Ultra-Trail® lasterketan, 44 emakume **“g2h”** trail lasterketan eta 63 emakume **“mmm”** marathon lasterketan.
- **“ehunmilak” Ultra-Trail® proba taldekako modalitatea:** aurtun 16 taldek eman dute izena, horietatik 3 talde mixtoak dira eta talde bat guztiz emakumezkoek osaturikoa da.
- **1.600 boluntario baino gehiago:** korrikalariak behar bezala hartatu eta mimatzeko ibilbide osoan zehar 1.600 boluntario izango ditugu. Ziur aski, hitzordu hau munduko trail ekitaldi

garrantzitsu bakarra izango da korrikalari baina boluntario gehiago daudena.

- **Osasun taldea:** Boluntarioez gain, Gurutze Gorriko taldeak 150 kide baino gehiago ditu, baita larrialdietako 24 mediku ere, bakoitza bere erizainekin egongo dena lanean guztia behar bezala atera dadin.
- **Fisioterapia eta podologia** zerbitzuak egongo dira anoa gunerik handienetan (Tolosa eta Etzegaraten) eta Beasaingo kiroldegiko azken anoa gunean.
- **Ekohunmilak + Erronka garbia ekitaldia:** Ingurumenarekiko errespetua eta jasagarritasuna bultzatu asmoz bultzatuz hainbat alorretan lanketa berezia egiten da: balizajea, dokumentazioa, anoa postuak, zaborra, autobusak... Informazio gehiago hemen: <https://www.ehunmilak.com/eu/antolakuntza/ekohunmilak/>
- **Autobus zerbitzua:** Antolatzaileek autobus sare bat dute ibilbideko hainbat tokitara joateko.
- **Tolosako anoa gunea:** Ehunmilakeko antolaketarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta, laz Tolosako anoa gunearen kokalekuan aldaketa egin zen herrigunera eramanez. Aurten ere Tolosako Beotibar pilotalekuan egongo da kokatuta gunea hau.
- **Nazioarteko sona:** Coloradoko (AEB) mendi garaietan egiten den "Hardrock 100 mile endurance run" lasterketarako proba kalifikagarria da ehunmilak lasterketa.
- **Euskal Herriko ultra distantziako kopa:** goierriko 2 haundiak lasterketa Euskal Herriko ultra distantziako kopako laugarren eta azken proba izango da.

SEGURTASUNA DENEN KONTUA DA

- **Derrigorrezko materialaren gogorazpena:** derrigorrezkoa izango da eskatzen den materialaz gain, jaka iragazgaitza kaputxarekin eta atzealdeko argi gorria eramatea.

PROBAREN JARRAIPENA

Korrikalariak jarraitzeko modu ezberdinak egongo dira:

- Ibilbideko gunea ezberdinetara doazen antolakuntzako [autobus zerbitzua](#) erabiliz.
- ehm edo g2h probetako korrikalarien daramaten Geokokapena edo GPS aparatuaren seinalearen bidez.
- Kontrol gunea bakoitzean txipak markatzen duen denborarekin.
- Gure webgunearen bidez ikusi ahal izango dira anoa gunea ezberdinetako webcam irudiak.
- Asteburu osoan zehar streaming-a egingo da helmugako pantaila erraldoian eta webgunean.
- Webguneko "ikuslearen gida" atalean informazio osagarri guztia.

Informazio gehiagorako: www.ehunmilak.com

Facebook: <https://www.facebook.com/EhunmilakUltratrailG2h/>

Twitter: [@ehunmilakg2](#)

Instagram: https://www.instagram.com/ehunmilak_ultratrail/

Kontaktua: ehunmilakultratrail@gmail.com

Kontakturako telefonoa: 676180690 (Iñaki)

Traola ofiziala: [#ehunmilak24](#)